

# Itotzeari beldurrez lehortu gara



Kepa Luzarraga



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

[booktegi.eu](http://booktegi.eu)

KEPA LUZARRAGA

# itotzeari beldurrez lehortu gara

Artikuluak

*Gure bizia hain iheskorra eta hutsala da, gauza bakar batek lasaitzen nauela:  
benetakoia izan naizela jakiteak. Hau da, ahalik eta nire antzik handiena izatea  
lortu dudala jakiteak.*

Frida Kahlo

# Kobazuloan

Sabaitik, ur tanta bat askatu da.

Kementsu doa, beherantz, dena aldatu nahian.

Talka egin ostean, hil egin da. Bere inguruan, denak berdin jarraitzen du, ezer ez da aldatu.

Tantaren saialdia hutsala izan da, estalagmitaz beteriko kobazuloan.

## Komentuan

Itxita gaude komentuan, otzantasun santuan, otoi egitearen hautuan, onartuz jaingo faltsuak.

Itxita gaude komentuan, otzantasun antzuan, leihotik begiratuz ezkutuan, ihesi doan momentua.

## Gazteon ajea

Gazteak gara, asaldariak, intsumisioaren drogazale.

Agian, ajea helduko zaigu, eta agian, gaindituko gaitu.

Baina festa ez da bukatuko, beste drogazale batzuk etorriko dira eta.

## Galduko ote dugu?

Ez garela lehenengoak? Auskalo.

Ez dakigula nora goazen? Baliteke.

Nekatuko garela? Nola ez ba?

Azkenak izango garela? Inolaz ere.

Galduko garela? Batek daki.

Galduko dugula? Irabaztera arte.

## Etorkizuna iragan

Etorkizuna behar dugu, oraindirik ez dagoelako, iragana saldu genuenetik.

Etorkizuna behar dugu, baina batez ere, berak gu behar gaitu.



# Lasai maitea

Lasai maitea, esperantzaz hutsik nago, bai, baina konbikzioz betea.

Egingo dugu bidea.

# Suaren inguruan

Suaren inguruan biltzen gara,

hotza ahazteko, berotan sartzeko,

txingarra itzaltzen den arte.

Eta orduan... nor izango da erregaia?

# Askatasun garestia

Egunak aurrera doaz, baina gu geldi gaude. Inoiz ez gara helduko amestutako etorkizunera.

Zuek korrika zabiltzate bere atzetik, errealitatea ukapenez biziz.

Nik, ordea, etsi dut azkenik.

Nekatuta nagoelako talka egiteaz, nahi dudan guztia, hain urruti izateaz, eskubideak ezin erosteaz, nire miseria betirako izateaz.

Kristalezko kartzelan bizitzeaz. Irteera bakarra kolpeka egitea, kristala ala nire burua apurtzea... ongizatearen prezioa ordaintzea

## Aingeru nekatuak

Zeruaren bila dabilen aingeruak, infernua ikusten du nonahi.

Zeruaren bila dabilen aingeruak, ez du inoiz bizitza maitatuko.

Zeruaren bila dabilen aingeruak, deabruzat dauzka besteak, hegorik gabeko aingeruak...

zerua Lurrean aurkitu dutenak.

# Etorkizuna

Etorkizuna ez badator, zer egingo dugu ba?

Ibiltzen jarraitu, tipi tapa.

# Ateo kristauak

Hainbeste eta hainbeste zero sortu ditugu, etorkizunean, utopian, gure irudimenetan.

Gure sinesmenek, Munduko edertasuna ukatzera garamatzate, etorkizun hobe baten izenean.

Bien bitartean, hementxe gaude, infernuan, guztiz erreta egun handiaren zain.

Ateo asko, inor baino kristauagoak garelako.

## Fedea eta arrazoia

—Sinets iezadazu.

—Zergatik?

—Sinets iezadazula!

## Jaungoikoaren izenean

“Aitaren, semearen, eta espiritu santuaren izenean, hemen”, zioen abadeak, poltsa seinalatzen.



# Inkisizio modernoa

Inkisizio modernoaren garaian, erabaki ezinik nago.

Intsumisoa banaiz, lepoa moztuko didazue, baina sumisoa banaiz, nire burua galduko dut.

## Zalantzarik ez

Erantzun infinitudun garai honetan, zalantzarik ez dago.

Baina nik ez dakit zein den, egin beharreko galdera.

# Ur handitan

Batzuk, itsasertzean daude, besteak, itsasoaren infinituan.

Batzuek, beldurra diote itotzeari, besteek, lehortzeari.

Batzuk, ez dira murgiltzen, besteak, ito egingo dira.

Nork ote arrazoa?

Itsasoak.

# Itsasoaren gorabeherak

Itsasoaren gorabeheren menpe, iparririk gabe, ekaitzez ekaitz.

Nekatuta nengoen, eta zu agertu zinen.

Itsasoa baretu zen, ipar berria aurkitu nuen zuregan, ekaitzak bukatu ziren.

Nire joana gelditu nuen, eta lehenengo aldiz, zentzua hartu nion.

Baina ez zuen asko iraun.

Itsasoa inoiz baino gogorrago itzuli zen, zu galtzen hasi nintzen, eta ekaitza... geroago ulertu nuen.

Baretasuna eskaintzen zenidan. Baita ipar bat ere.

Ekaitzetatik babesten ninduzun... niregandik.

Ni naiz ekaitza.

Eta zu... nire aingura.

## Maite zaitut

Hotza zaren arren, inork baino goxoago hartzen nauzu. Txikia sentiarazten nauzun arren, handiago egiten nauzu. Zoratuta zauden arren, lasaitu egiten nauzu. Inoiz joaten ez zaren arren, sarritan bueltatzen zara. Berba egiten ez duzun arren, entzuten zaitut. Ulertzen ez zaitudan arren... maite zaitut, itsaso.

# Bizitzaren tragikomedia

Bizitzan, gutxi gutxika, aurrera goaz, bere eskuetan dauden titiriteroak bezala.

Ez dakigu ze obra antzezten gauden, eta komedia, bat batean, drama bihurtu daiteke.

Ez zaituz harritu, beste guztien istorioan, figurante bat besterik ez zara.

# Utopia, distopia

Gazteak ginen, utopikoak, utopia zaharkitu zitzaigun arte.

Zaharrak gara, errealistak, errealitateak zahartu gaitu.

Begiak zarratu genituen, lokartu ginen, eta gure ametsak saldu genituen.

Pragmatismoaren izenean... amesgaiztoan bizirautearen truke.

# Lantegiko komunean

Lantegiko komunean, isiltasun salatzailean, lur jota zaude.

Arnasa hartu nahian, kaka kiratsa sentituz, zure etsipen ustelarena.

Bertan jarraituko du, ausartzen ez zaren arte, katea eragitera.



## Gasolinaren negozioia

Piromanoek, ez dute haserre sutsua sentitzen, neke hotza baizik.

Piromanoek, ez gaituzte gu kiskali nahi, euren burua freskatu gura dute.

Piromanoek, ez daukate beren burua deabruzat, bizitza infernutzat daukaten arren.

Piromanoek, suhiltzaileak akabatuko dituzte, sutzen dituztenen orde.

Hauk, bitartean, kearen atzean jarraituko dute, beste guztiak erretzen diren bitartean,

beraiek saldutako gasolinarekin.

# Putreak

Putre, pizti, sai, hainbeste etsai, bere hilotzaren zain.

Baina bizirik darrai, eta ez dira gai... ezin dute erail.

# Jaio zenetik

Jaio zenetik, ez da hasi,  
kateak onartu zituen.

Jaio zenetik, ez da hazi,  
zimeldu egin da.

Jaio zenetik, ezin dezakezue erail.  
bere burua hil zuelako.

## Bizi bizia

Zeruan piztia, ekiak jaikia, gaindituz habia.

Jaso du zauria, galdu du bizia, lurrean jauzia.

# Sokatiran

Tentsio gehiagorik ez, mesedez, edo gurea apurtuko da.

Sokatiran nabil, irabazteko asmorik gabe, samurtasunez eusten.

Sokatiran nabil, galtzeko intentziorik gabe, grabitatearen kontra...

soka askatu nahian.

Amildegia salbatzen zaitu.

# Trintxerak

Baketsu jarraitu nahi dut, gizartearen trintxeretan.

Ez zaituztet mindu nahi, zuek mindu nauzuen bezala.

Horregatik nabil, arma barik, erasoen artean geldirik.

Oraindik ez dut inor hil, eta jada odolaz nazkatu naiz.

Guda hau ahaztu nahi dut, baina ez dizuet nire bizia emango.

Borrokatzera kondenatuta nago.

## Gero eta hobeto

Gero eta kolonia garestiagoa. Baina gu, gero eta txiroagoak. Gero eta arropa desberdinagoa. Baina gu, gero eta antzekoagoak.

Gero eta kale zabalagoa. Baina gu, gero eta estuagoak. Gero eta herri turistikoagoa. Baina gu, gero eta bakartiagoak.

Zertarako?

## Odisea moderna

Ulisesek, etxeranzko bueltan, sirenei beldurra zien, seduzitzen zutelako, eta bere burua mastara lotu zuen.

Etorkinak, etxetik ihesean, sirenei beldurra die, jipoitzen dutelako, eta ontzitik salto egiten du.

Ulisesi buruz, epikaz idazten da.



# Isilduak

Ez dut isilduen ahotsa entzunaraziko, euren izenean, nirea altxatuz.

Isilduen ahotsa entzunaraziko dut, isiltzen naizenean.

# Banderak eta jendetzak

Bakarrik dabilta.

Sakabanatuta, aldentuta. Bakoitzak bere burua maite du: bere kolorea, bere lema, bere irudia. Denek maite dute beren sinbolismoa. Baina, zeren atzetik dabilta?

Batera gabiltza.

Denok bildu gara, bere inguruan. Denok maite dugu gure bandera: bere kolorea, bere lema, bere irudia. Denok maite dugu bere sinbolismoa. Baina, zer sinbolizatzen du?

# Zer naiz ni?

Zer naiz ni?

Nire identitatea. Bakarra ote da?

Nire gorputza. Ez ote naiz ni berea?

Nire pentsamenduak. Arrotzak bazaizkit ere?

Nire ideologia. Existitzen ote da?

Zer naiz ni? Ezerezaren inguruko harresi bat.

# Iparra galduta

Aspaldi galdu nuen iparra,

baita hegoaldea ere,

baina hegoak inoiz ez.

Haizeak eraman nazala

# Izar uxoa

Zeru zoro honetan izar-uxo bat besterik ez naiz.

Motza, hutsala, ahazterraza.

Baina norbait argitu dezaket.

## Nire heroia, nire etsaia

Nire heroia izan zen, garai garaienetan. Nire etsaia, gainbeheraren aroan. Orain, nire laguna besterik ez da, sasoirik gabeko egunotan.

Ez zaitetz errukitu, nire buruaz ari naiz eta.

## Aukera ezazu bandoa

Haserretzen direnak daude, baita zurelako esker onekoak.

Altxatzen direnak daude, baita zurelako lasaiak.

Borrokatzten dutenak daude, baita galtzen dutenak.

Erabakitzen dutenak daude, eta zu, hauen artean.

# Erabakia, erabakita

Guztion garraioa, ala bakartia.

Kontsumo lokala, ala espoliazioa.

Energia berdea, ala heriotza beltza.

Gure buruaren onura, ala gure seme alabena.

Jada erabaki dugu.



## Hizkuntza hizpide

Eskubideak merkantzia direnean, errespetua mehatxu denean, egonkortasuna egonezina denean, bakea zapalkuntza denean...

Isilik egotea ezinezkoa da, baina, zer esan dezakegu?

Hizkuntza bahitu duzuela.

# Performancea

Performancea bukatuta, txaloka daude, irribarrez gainezka.

Baina oihalaren atzealdean, iluntasunak irensten zaituenean, ez da ezer entzuten.

# Puzzlea

Puzzlean ahokatu nahian, alboko piezak kaltetu ote ditudan.

Puzzlean ahokatu nahian, higaduraz kamustu ote naizen.

Puzzlean ahokatu nahian, banakotasuna sakrifikatu ote dudan.

Puzzlean ahokatu nahian, pieza soil bat naizela sinetsi ote dudan...

Ustel daitezela besteak, puzzlean ahokatu nahian.

## Merezi izan du?

Heriotzak galdetzean, merezi izan duen,  
gosea pasatzea, idaztearen truke,  
erantzungo diot irribarre biziz:

“Ez naiz idaztetik bizi, idazteko baizik.”

# Irakurle nekatua

Irakurleak ezin zuen gehiago jasan, eta liburua lurrera jaurti zuen.

Bere barnean, pertsonaia aspergarri bat, kapitulurik gabeko bizitza hutsalarekin.

Zentzurik gabeko istorio horrekin, aurrerantz jarraitzea alferrikakoa zen.

Liburua irakurtzeak ez zuen merezi, bere bizia bizitzeak bezala.

Irakurleak bere buruaz beste egin zuen. Behingoz istorio bat idatzi du.

# Itsasertzean

Hondartzan dabil, asfaltoaz nekatuta. Onartuz bere patua, beldurak menperatua, hori da bere bekatua.

Itsasertzean dabil, olatuek berpiztua. Freskuraren bila, ez dagoelako hila, barne iskanbila.

# Baketsuok

Baketsuok... Gatazkak gaintitu nahi ditugu, hauetan parte hartu gura dugu. Badakigu ez duela deus balio, justizia zapaltzeak, bakearen izenean.

Baketsuok... Gatazkak gaintitu nahi ditugu, hauetan parte hartu gura dugu. Badakigu ukazioz ihes egitea, parte hartzea ere badela, zapaltzailearen alde.

# Bala galduak

Agian, bala galduak ez daude galduta.

Agian, ihes egin dute,

ez dutelako inor zauritu nahi.

Eta agian, horregatik dauzkagu galdutzat,

ez dakigulako bakean bizitzen.



# Zaldi zoroa

Zaldi zoroa, katerik bakoa.

Beti mendian, inoiz ez gurdian.

Zaldia saldu, zaldia galdu.

Zaldia badoa. Zaldi zoroa.

# Zarata

Zaratak, garrasi egiten zuen, bere burua ez entzuteko.

Zaratak, soinua izan nahi zuen, isildu ahal izateko.

# Eskultorea

Eskultorea eta artea, kolpez kolpe, bata bestearen atzean.

Artea, zelatan dabil, gogor eutsiz, bitartean...

... eskultore egoskorra harrituta esnatu arte, bat batean.

# Erro zaharra

Aspaldi hasi zuten, egun jarraitzen du.

Beragatik hil ziren, berari esker bizi gara.

Iraganaldiaren anekdota, orainaldiaren zutabe.

Haien irri berria, gure erro zaharra.

Atzo igorri zuten, gaur berotzen gaitu.

Kultura, eguzki izpia da.

# Bizitzaren esanahia

Bizitzaren esanahia?

Esan nahia.

# Hezkuntzaz

Ikasi beharrekoa ikasita, azken kapitulura helduta, itxi du liburua, gainditu du azterketa, oztopoa, hezkuntza.

Hautsez beteko da.

# Ezina

“Ezina, ekinez egina”, ekintzaileen lema, leloen leloa.

# Helmugatik ihesean

Beti aurrerantz jarraitu beharko dut, ezezagunerantz.

Ikasiz ahazteko, galduz aurkitzeko, nire pasioa.

Noizbait esango dut, nahikoa izan dela, onartu beharko dut, iparra hegoan, txoriak hegan, eta ni, bidean, helmugatik ihesean.



# Ziztadaz ziztada

Ziztadaz ziztada bizi izan naiz.

Ziztadaz ziztada ezagutu zaituztet.

Ziztadaz ziztada apurtu nauzue.

Ziztadaz ziztada hazi izan naiz.

Zuetako bakoitza orratz bat delako...

Eta ni, oihala.

# Telefonoaren hotsa

Telefonoaren hotsa, eta erantzun motza, zure ahotsa.

Telefonoaren hotsa, ziztada zorrotza, berri mingotsa.

Telefonoaren hotsa, eta isiltasun hotza. Gelditu da bere bihotza.

# Zortea

Poeta izatea, hori zortea, tristurak salduz, aberastea.

# Senarraren hiletan

Senarraren hiletan, alargunaren tristura:

Hil zaiolako, negarka;

hil delako, zeharka.

Senarraren hiletan, alargunaren tristura.

## Bizitzaren zikloa

Hainbestetan egon gara, momentu horietaz hitz egiten.

Sarritan egon nahiko nuke, iragandako momentu ederretan.

Askotan bizi nahi izan dut, berriro bizi ezingo dudana.

Baina iragana ez dugu iragaten, iragan dela onartzen ez dugun arte.

Eta bizitakoa, hilda dago.

Hil beharra dauka, zerbait berria sortu ahal izateko.

## Aterki saltzailea

Aterki saltzailearen lez nabil, kalean, azkena saldu ote, egun euritsu batean.

# Gure iraultza

Maindireen barruan, gure iraultzan, mundua sutan jarritz, edo gutxienez, elkar berotuz.

# Usoak

Hegan dabilta usoak, beroa, hain uxoa, bukatzean, badoaz.



# Basamortuan

Ur arrastoen atzetik, egarriz nabil basamortuan, arnasestuan.

Adiskide bakarrak, harearen fereka latzak... nire oinatzak.

## Zure zain

—Aizu, noiz helduko ote zara?

—Banoa, banoa, itxaron nazazu.

Erantzun zidan, esperantzak.

## Bakardadean bakarrik

Niregana etorri zinen, bakarrik al nengoen galdetzera.

Niregana etorri zinen, eta orain ez nago bakarrik.

Niregana etorri zinen, eta neukan bakarra lapurtu zenidan.

Niregana etorri zinen, joan zaitez pikutara.

# Samina

Gure istorio zoroa, jada bukatuta dago, eta nik ez daukat gogorik, gezurretan jarraitzeko.

Nirea izan zinen, itsutu ninduzun. Begiak ireki ditut, eta inon ez zaude zu.

Sortzen zenuen kea, itzali denean, argi ikusi dut, surik ez zela.

Zu ez zinela, eta... nor bestela? Maitemina, sexu grina.

## Zu, zu eta zu

Zure izaera jostalaria.

Zure irribarre nekaezina.

Zure alaitasun oparoa.

Zure naturaltasun orijinala.

Zure begirada neurrigabea.

Zure sakontasun koloretsua.

Zu, zu eta zu.

Estimulu larregi.

Eta ni, babesgabe,

ispiluaren aurrean.

## Zu eta ni

Zure mezuak, nire aspirina. Zure irribarrea, nire barrea. Zure baietza, nire noskia. Zure etxea, edo nire etxea.

Zure beroa, nire infernua. Zure bekatua, nire erredentzioa. Zure bizioa, nire bizia. Zure aluartea, nire baluartea.

# Hiztegia

Hiztegia, liburu okerrena, "zu", bigarren pertsona zarela dio eta.

## Zure usaina

Zure usainak piztu du nire barneko sua. Dastatu behar dut, zure zaporea, hementxe behar zaitut, nire eskuen artean, bokata batean.



# Gure itsasertzak

Itsasgorak, oparotasunak, urrundu gaitu, gure itsasertzak ito ditu.

Itsasbeherak, pobreziak, bat egin gaitu, bion arteko ozeanoa lehortu egin du.

# Eztia

Momentu hori helduko zaizu, maitale bi eztian ikustean.

Ez duzu desiratuko neska edo mutil hori, zurea baizik.

Eta orduan, jakingo duzu.

Maitasun posesiboaren pe zaude.

## Laurogeigarren aldiz

Zure azken ferekak eta lehen negarrak, arnas gabe utzi nautenean, inspirazioa... nire hamaikagarren ideia, laurogeigarren poema.

# Maitasunaz

Maitasuna airean dabil txoriak bezala, eta bere atzetik, ornitologo eta ehiztariak.

# Ametsa

Galtzen zintudala amestu nuenetik,

loak ihes egin zidan.

Zuk, ordea, nire alboan jarraitu zenuen,

ohean, gau luzeotan.

Nire amesgaiztoa hil zenetik,

gure ametsak bizirik darrai.

# Galtzontzilo zaharrak

Atea ireki diozu, galtzontzilo zaharrak jantzita, onar ditzan, zaitzan.

Lortu ote duzun? Auskalo, sartu bezain pronto erantzi dizkizu.

Zuoi, eskerrik asko

Zuek gabe, ez nengoke ez hila, ez kartzelan, ez elizan.

Baina zuekin, gehien maite dudana izan naiteke... ni neu.

Itsasertzean gaude, hondarrezko  
gazeluetan, segurtasunaren gatibu;  
itsasoa, askatasuna, zeharka begiratzuz.

Gure barne gatazkak, olatuak bezala,  
etengabe dabilta hondarraren kontra  
borrokan.

Kementsuak eta alaiak dira itsasbeheran,  
zorrotzak eta latzak itsasgoran.

Itotzeari beldurrez lehortu gara, eta  
hauek, busti nahi gaituzte, behingoz,  
itsasoan murgildu gaitzen.